


Hotsetik zeinura eta buelta

Zeinu-hizkuntzako interpreteek entzuten dutena zeinu bihurtzen dute eta ikusten dutenari, berriz, ahotsa jartzen diote: horixe da euren lana. Bideo honetan interprete euskaldun bati egindako elkarrizketa daukazu ikusgai.



Bideoa ikusi eta adierazi baieztapenak egia ala gezurra diren.

<https://bit.ly/3WaOo0Q>

	EGIA	GEZURRA
1- Jugatxi askotan galdetzen diote Hego Euskal Herrian zeinu-hizkuntza espainiarra edo euskalduna erabiltzen duten.		
2- Elkarrizketatua gai izango litzateke Iparraldeko gor baten diskurtsoa interpretatzeko.		
3- Agirrek bere interprete-ikasketak goi mailako ziklo bezala hasi eta unibertsitateko ikasketa gisa amaitu zituen.		
4- Gaur egun Euskal Herrian interprete-ikasketak burutzea ezinezkoa da.		
5- Interpreteek ikasketak Euskal Herrian eskaintzea eskatzen dute, ikasleek zeinu-hizkuntza espainiarra euskarara egokitzen ikas dezaten.		
6- Interpretatzeko garaian, kontzeptuak zeinu bihurtzen dituzte eta ez hizkiz-hizki.		
7- Alfabetoa izen bereziak adierazteko erabiltzen dute.		
8- Izen bereko pertsona guztiei keinu bera dagokie.		
9- Zeinu bat gorputzetik hurbil edo urrunago egiteak akats gramatikala eragin dezake.		

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Gai izan. Zerbait egiteko gaitasuna eduki.
Zeinu hizkuntzaren ogibidea. Zeinu hizkuntzaren lanbidea.
Aukera bakarra. Ez dago beste irtenbiderik.
Ikusi eta ikaste aldera. Ikusteko eta ikasteko helburuarekin.
Hitzak ordezkatu. Hitz bat bestearengatik aldatu. Hitz baten lekuan beste bat erabili/jarri.
Norbere izena. Bakoitzak bere izena.
Aintzat hartu. Kontuan hartu

ERANTZUNAK

	EGIA	GEZURRA
1- Jugatxi askotan galdetzen diote Hego Euskal Herrian zeinu-hizkuntza espainiarra edo euskalduna erabiltzen duten.		X
2- Elkarrizketatua gai izango litzateke Iparraldeko gor baten diskurtsoa interpretatzeko.		X
3- Agirrek bere interprete-ikasketak goi mailako ziklo bezala hasi eta unibertsitateko ikasketa gisa amaitu zituen.		X
4- Gaur egun Euskal Herrian interprete-ikasketak burutzea ezinezkoa da.	X	
5- Interpreteek ikasketak Euskal Herrian eskaintzea eskatzen dute, ikasleek zeinu-hizkuntza espainiarra euskarara egokitzen ikas dezaten.	X	
6- Interpretatzeko garaian, kontzeptuak zeinu bihurtzen dituzte eta ez hizkiz-hizki.		X
7- Alfabetoa izen bereziak adierazteko erabiltzen dute.	X	
8- Izen bereko pertsona guztiei keinu bera dagokie.		X
9- Zeinu bat gorputzetik hurbil edo urrunago egiteak akats gramatikala eragin dezake.	X	

TRANSKRIPZIOA (00:03:39)

Maialen Arzallus, aurkezlea. Jugatx, eta hasiko gara zerbait argitzen, jende askok uste duena; zeinu-hizkuntza bakarra dela munduan. Baina ez da horrela, ezta?

Jugatx Agirre, interpretea. Bai, hori askotan kalean galdetzen diguten galdera bat da baina ez, zeinu-hizkuntza ez da unibertsala, herrialde bakoitzak bere zeinu-hizkuntza dauka. Guk kasu honetan Hego Euskal Herrian zeinu-hizkuntza espainiarra erabiltzen dugu. Bai.

Xabier Sukia, aurkezlea. Eta zu adibidez gai izango zina(te)ke Ipar Euskal Herriko gor batekin komunikatzeko?

Jugatx Agirre. Ba, igual... komunikazio minimo bat (gutxieneko bat) bai baina interpretatzeko ez: komunikazioa. Bai, bai.

Maialen Arzallus. Denak desberdinak dira baina badute elkarren artean oinarrian, amankomunean duten portzentaia bat?

Jugatx Agirre. Portzentaia ez dakit, zenbatekoa izango litzatekeen ez dakit baina egia da Europa eta Ameriketako zeinu-hizkuntzak (hizkuntzek) historikoki bai dau(z)katela zeinu batzuk amankomunak eta Afrika eta Asiako zeinu-hizkuntzekin oso ezberdinak direla. Baina bueno, egia da herrialde bakoitzak bere zeinu-hizkuntza daukala, orduan, beti daude ñabardurak, desberdintasunak...

Xabier Sukia. Zuk non ikasi duzu zeinu-hizkuntzaren ogibidea?

Jugatx Agirre. Ba nik ikasi nu(e)n 2013an amaitu nuen Bilbon, garai hartan goi mailako ziklo bat zen eta, egia da, handik hiru urtera ja, 2016an, unibertsitateko ikasketa bihurtu zirela eta ja goi mailako zikloa amaitu egin zela.

Maialen Arzallus. Eta unibertsitateko ikasketa horiek hemen, Euskal Herrian, egin daitezke?

Jugatx Agirre. Ez, gaur egun Madrilera joan behar da, aukera bakarra hori da. Egia da, guk aldarrikatzen duguna (dioguna) da Euskal Herriko Unibertsitateari ikasketa hauek ere hemen izateko (izatea), ze azkenean Madrilera joaten direnek ez dute ikasten euskarara interpretatzen, ez? Orduan, ba hori pixka bat garrantzitsua da.

Xabier Sukia. Eta azalduko diguzu, pixka bat tripak nola diren ikusi eta ikaste aldera, nola itzultzen da? Hizkiak erabiltzen dira itzulpenak egiteko, kontzeptuak erabiltzen dira, hitzak ordezkatzeko dira...?

Jugatx Agirre. Gure kasu(a)n, hau da, zeinu-hizkuntzak ba hitz bakoitzak bere zeinua dauka, ez gara joaten hizkiz-hizki bestela ba denbora asko suposatuko luke eta, egia da, zeinu-hizkuntzak ere bere gramatika daukala, orduan, zuk ahozko hizkuntza bat entzuten duzunean itzulpen bat egin behar duzu eta kasu honetan mezu berdina (bera) helarazi behar duzu. Esandakoa(re)n mezu berdina (bera) baina zeinu-hizkuntzan.

Maialen Arzallus. Baina, gero, alfabetoa badago, ezta?

Jugatx Agirre. Bai, alfabetoa (ba)dago baina azkenean hori da zeinu-hizkuntzako osagarri bat ba adibidez, izen propioetarako erabiltzen dena, ba adibidez, ni aurkezten naizenean nire izena esaten det (dut); j-u-g-a-t-x, baina gero adibidez nik nire zeinua esaten det zein dan (den).

Maialen Arzallus. A, beraz, pertsona bakoitzak dauka norbere izena alfabetoz esateko aukera eta gero norberak dauka bere keinua, ezta, edo sortzen du norberak norbere izena nolabait.

Jugatx Agirre. Bai

Maialen Arzallus. Eta gero, keinuak egiten dituzunean, zeinuak egiten dituzunean pentsatzen dut zerikusia izango duela posturak, gorputzeko hurbiltasunak, mugimenduak...

Jugatx Agirre. Bai, azkenean zeinu bat egiten duzunean aintzat hartu behar duzu adibidez eskua nola jarri duzun, gorputza(re)kin zeinu horrek kontaktua (harremana) daukan, aurpegiko espresioa daukan ala ez, non kokatzen den... ez? Azkenean akats gramatikalak ere egin daitezkeelako.